



NAFARROAKO GOBERNUARI EGITEN DIZKIOGUN PROPOSAMENAK

2011ko urria

0- SARRERA

Ekaineko hauteskundeek ez dute benetako aldaketarik eragin Nafarroako Gobernuan, eta UPN agintean jada bakarrik ez dagoen arren, azken urteotako bidetik jarraitzea erabaki dute alderdi horrek eta bazkide duen PSNk.

Bi alderdiok sinatutako gobernu-itunean garbi ageri dira lehentasunak: lehengo eredu instituzionalari eustea; gastu publikoa murriztea eta, aldi berean, azpiegitura faraonikoak eta alferrikakoak (AHT, adibidez) egiten jarraitzea, lehengo enplegu-politika eta “elkarriketa sozial” berari eustea...

Kezkagarriak dira, egiazki, Nafarroako gobernuaren asmoak eta murrizketa neurriak, ondorio larriak baitakartzate: krisiaren areagotzea; langabeziaren eta behin-behinekotasunaren hazkundera; gizarte-babesaren gutxitzea eta zerbitzu publikoen kalitatea txartzea.

Hori guztia ikusirik, zenbait proposamen prestatu ditu ELAk, krisiari irtenbide soziala eman nahirik betiere, hots, lehentasuna aberastasunaren banaketari, enpleguari eta babes sozialari emanez.

I- UPN-PSN: GOBERNU-HITZARMENA ETA MURRIZKETA-POLITIKA

Ekainaren 21ean sinatu zuten UPNk eta PSNk gobernu-hitzarmena, eta han daude jarraitu beharreko ildo nagusiak. Testuak batere zehaztasunik ez duenez, ideia orokor batzuk baino ezin atera handik.

Itunaren testutik ondorioztatzen denez, UPNk azken urteotan erabili duen politika bera erabiliko dute UPNk eta PSNk 2011-2015 epean. Alde horretatik, PSN gobernuan jardutea ez da inolako oztopo izango; izan ere, gai nagusietan beti etorri dira bat bi alderdiok.

- **GOBERNU-HITZARMENA, EKONOMIAN: MURRIZKETAK ETA AZPIEGITURAK**

Lehengo gobernuaren helburu ekonomiko berak dituzte UPNk eta PSNk: gastu publikoa murriztea eta, horrekin batera, zenbait azpiegitura handi (eta alferrikako) bultzatzen jarraitzea. Bide batez, enpresen eta kapitalaren interesen arabera zerga-politika ari dira prestatzen bi alderdiok.

Batetik, gastu arrunta gutxitu nahi dute: bestetik, zorpetzea saihestu. Administrazio publikoa argaltzea dakar horrek, eta hango langileen lan-baldintzak txartzea, orain artean bezala. Enplegu gehiago suntsituko dute doitze-neurriek, eta are larriagoa bihurtuko babes sozialaren gabezia.

Hala eta guztiz ere, obra eta azpiegitura handien alde egiten du gobernu berriak: AHT, Reyno de Navarra Arena pabiloia, Camino autobia, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea... Administrazio publikoan, bien bitartean, doikuntzak

eta murrizketak egiten ari da (oso larriak horietako batzuk; adibidez, langileen soldata-jaitsiera) eta gastu publiko arrunta jaitea proposatzen du.

Bestalde, ez du azken urteotako zerga-politika aldatzeko batere asmorik: enpresarien eta kapitalaren aldekoa izaten jarraituko du, are gehiago proposamen berriekin (“enpresetarako zerga-politika” eta “Sozietateen gaineko Zergaren jaitsiera progresiboa aztertzeko plana”). Hortaz, lehendik geneukan zerga-politika eskuindarra are eskuinerago eramateko prest dago UPN-PSN gobernuak.

Azkenik, “zerga-sistema bidezkoa eta lehiakorra” duela helburu dio gobernu berriak. Bistakoa denez, UPNren eta PSNren zerga-justiziaren ikuspegia ez da langileona, ez baita inondik ere bidezkoa administrazio publikoa txikiagotzen jarraitzea, enpresei zergak jaitea eta aurrezkiaren bidez kapitala metatzea. Langileok behar dugun aberastasunaren banaketarekin zerikusirik ez dute asmo horiek.

- ESTALDURA SOZIAL GUTXIAGO

Gobernu berriak ez du neurri bakar bat ere proposatzen zerbitzu publikoak (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak...) hobetzeko, eta egiten ari diren murrizketak zorrotzak ikusirik, estaldura soziala gutxitzen ari direla esan daiteke.

- HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOARI EZ ZAIO EKITEN

Hizkuntza-politikari dagokionez, hau bakarrik dio gobernu berriak: “Despolitizatu egin behar da; askatasuna bai, inposaketarik ez”. Bistakoa da zergatik ez dituzten gehiago jorratu UPNk eta PSNk hizkuntza-alorreko helburuak: ez dutelako nahi hizkuntza-normalizaziorik, eta euskarak mendeko hizkuntza izaten segitzea nahi dutelako.

II- NAFARROAKO GOBERNUAREN MURRIZKETAK

Nafarroan azken urteotan egin diren murrizketarik larrienak ari da egiten UPN-PSN gobernua. Berriro ere gastu publikoa murriztea erabaki dute, zerga-politikan aldaketa nabarmenak egin eta gehiena daukatenei gehiago kobratu beharrean.

Oso kaltegarria da politika hori, bai gizartearentzat bai ekonomiarentzat: jarduera ekonomikoa geldiarazi egiten dute murrizketek, eta areagotu egiten ditu horrek langabezia eta behin-behinekotasuna.

Iragan irailaren 28an, gastu publikoan 294,3 milioi euroko murrizketa egingo zuela iragarri zuen Nafarroako Gobernuak, oraindik argitu ez duen arren non eta zertan murriztuko dituen, zenbateko horretatik, 103,66 milioi euro. Beraz, berez ere oso murriztailea zen aurtengo aurrekontutik, gastatu gabe geratuko da % 7,6a, hots, BPGd-aren % 1,5.

Oso kaltegarria da —bai gizartearentzat, bai ekonomiarentzat— azken urteotako gastu publikoa murrizteko politika. Ez dauka batere zentzurik jarduera politikoa geldiarazten duten politikak areagotzeak, langabezia ere areagotu egiten dute eta.

Gogoratzekoa da erabaki horien aurretik onartu zuela Nafarroako gobernua % 1,3ko gehieneko defizita 2011rako, Zapateroren gobernuarekin “adostu” ondoren, hots, autogobernuari uko eginez.

Urriaren 6ko 1/2011 Foru Lege Dekretuak zehazten du, hein batean, zertan gauzatuko diren murrizketa horiek:

I- MURRIZKETAK OSASUN-ALORREAN

Aurrekontu-murrizketak direla eta Osasun Sailak argitaratutako agiriak dioenez, “2011ko irailaren 29tik abenduaren 31ra bitartean, 95,8 milioi euroko gastu-doiketa egin behar da”.

Osasun Saileko aurrekontuaren % 9,8 jaten du murrizketa horrek. Hasieran, 973,6 milioi eurokoa zen aurrekontua; orain, 877,8 milioikoa.

Hona hemen murrizketetako batzuk:

➤ *Enplegu gutxiago, soldata txikiagoak*

- Aldi baterako kontratatutako langileentzako kontusailletako bat murriztu egin da. Hori dela eta, ezingo dira egin aurreikusita

zeuden zenbait kontratazio, guztiak ere beharrezkoak Osasunbidearen eguneroko funtzionamendurako.

% 43,7koa da behin-behinekotasuna Osasunbidean. Onartezina da, erabat, horrenbesteko behin-behinekotasun tasa izatea gobernu batek, justu alderantzizkoa egin behar bailuke: behin-behinekotasunaren aurkako jardunean eredugarri izan, alegia.

- Jaitsi egin da langile batzuek jasotzen duten arriskuagatiko osagarria.

Hemendik aurrera, pertsonal ez-sanitarioak ez du kobratuko osagarri hori; gainerakoei, berriz, % 4tik %2ra jaitsiko zaie goiko mailetan, eta % 1era behekoetan.

- E mailako 102 funtzionario-postu kendu dituzte Enplegu Publikoko Eskaintzatik.

Murrizketa hori dela eta, 35 enplegu gutxiago izango dira zerbitzu orokorretan, eta 67 gutxiago ospitaleetako sukaldeetan.

➤ *Ospitaleetako sukaldeen pribatizazioa*

Ospitaleetako sukalde-zerbitzua pribatizatu egin behar du Osasun Sailak. Lau milioi euro aurreztuko omen dira neurri horrekin.

Pribatizazioek behin-behinekotasun handiagoa eta lan-kondizio okerragoak ekarri ohi dituzte, beti. Nola aurreztu behar ditu Osasun Sailak 4 milioi euro, zerbitzu bera eskainiz eta sukaldeak kudeatzen dituen enpresa pribatuak irabaziak lortuz, hor lan egiten duen jendearen bizkarretik ez bada?

➤ *Itxarote-zerrenda handiagoak*

Nafarroako Gobernuak 2008an indarrean jarri zuen Berme Legeak ezartzen du paziente bat artatzeko gehieneko denbora-epea. Epe hori gaintuz gero, osasun-sektore pribatura bidali behar da pazienteak.

ELA ez zen bat etorri plan horrekin, eta itxarote-zerrendak murrizteko osasun-zerbitzu publikoen baliabideak, jasaten duen kargarekin parekatzea eskatu genuen, baliabideak handituz, noski. Horren orde, baina, gero eta jende gehiago bidaltzen dute sektore pribatura, hartara klinika eta ospitale pribatuek diru publikoaren kontura dirua gogoz irabaz dezaten.

Osasun Sailak indarrik gabe utzi behar du, orain, lege hori. Ondorioa: izugarri handituko dira itxarote-zerrendak, egiturazko konponbiderik ez baitzaio eman arazoari.

➤ *Bateratu edo kendu egin dituzte zenbait zerbitzu mediko*

Hiru eremutan (Iruñea, Lizarra eta Tuter) daude banatuta gaur egun Nafarroako zerbitzu medikoak. Osasun Sailak eremuak bateratzea erabaki du, eta zerbitzua zentralizatzea.

Zenbait zerbitzu kentzea dakar erabaki horrek. Izan ere, zenbait zerbitzu —guardia lokalizatuak, adibidez— eremu batean baino gehiagoan eskaintzen ziren lehen; orain, aldiz, bateratu egingo dituzte, eta Nafarroa osorako eskaini. Zerbitzu gutxiago eta kalitate okerragokoak izango ditugu, beraz. Landa eremuko Larrialdien Zerbitzua ere “berrantolatzeak” dira.

Lizarrako kirurgia-unitatea, bestalde, Iruñeko ospitale gunera eraman nahi dute.

II- MURRIZKETAK HEZKUNTZAN

Hezkuntza Saila ere murrizketa handiak ari da egiten. Hona hemen aipagarrienak:

➤ *Murrizketak langileei*

- Bigarren Hezkuntzako irakasleek eskola-ordu bat gehiago eman behar dutela erabaki du Sailak: astean 17 eskola-ordu eman beharrean, 18 eman beharko dituzte.

Bestalde, 55 urtetik gorako irakasleei (Bigarren Hezkuntzakoei) kendu egin zaie lehen zeukaten eskola-orduen murrizketa.

Irakaskuntzaren kalitate eta lan-baldintzen okertzea ez ezik, enplegu-galera nabarmena ere badakarte neurri horiek.

- Ez da irakaslerik ordezkatzeko lehenengo 15 egunetan, ezta bajak aurrez iragarriak eta luzeak badira ere (amatasun-bajak, adibidez).
- Murrizketa handiak ari dira egiten trebakuntza-alorrean.
- Hezkuntza berezian, doitu egin dituzte irizpideak. Hori dela eta, haur gutxiagok jasoko du laguntza hori. Jakina, neska-mutil horien hezkuntza-kalitateak txarrera egingo du, eta enplegua galduko da baita.

➤ *NUPen eta UNEDen finantziazioa*

% 6,5 jaitsiko da NUPen finantziazioa; UNEDena, berriz, % 10.

➤ *Murrizketak ikasle-garraioan eta jangeletan*

% 4 eta % 3 murriztuko dira, hurrenez hurren, ikasle-garraiorako eta jangeletarako kontusailak.

Liburuak doan banatzeko planaren finantziazioa, bestalde, % 18,9 murriztuko da.

➤ *0-3 urte arteko umeen eskolatzea*

Nabarmen gutxituko dira 0-3 eta 0-4 urte arteko umeak eskolatzeko udalekin adostutako kontusailak: orotara, % 11,4.

III- MURRIZKETAK ZERBITZU SOZIALETAN

Murrizketa hauek egin ditu Nafarroako Gobernuak Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria Sailak:

➤ *Prestazio sozialak, izoztuta*

Gizarte Zerbitzuen Zorroan ageri diren diru-prestazioak ez dira KPlaren arabera eguneratuko.

Gizarte Zerbitzuen Zorroa onartzen duen Foru Dekretuaren arabera, "KPlaren arabera, gutxienik" eguneratu behar dira sail orokorreko prestazioak. Hauek mendekotasunari, gizarte-bazterketari, adingabeei, genero-indarkeriari eta abarri dagozkienak dira.

Nafarroako Gobernuak ez du argitu ezta prestazioen zenbatekoa eguneratu behar duen ere, eta "unean uneko aurrekontu-ahalmenaren" esku uzten du horretarako aukera. Prestazioak izoztea suposatzen du horrek, beraz.

Onartezina da Nafarroako Gobernua prestazio sozialak izozteko baliatzea egungo egoeraz. 2011ko kontuetan ez du inongo eraginik izango murrizketak, urtero egiten baitira kontuak. Hortaz, 2012tik aurrera sartuko da indarrean izozketa.

Bestalde, erosteko ahalmenaren galera ere badakar izozketak eta, horrenbestez, diru-galera eragiten die hartzaileei.

➤ *Prestazioen arteko bateraezintasuna*

Horrez guztiz gain, mendekotasunaren alorreko prestazioen arteko bateraezintasuna ezarri du Dekretuak.

Hori dela eta, alor horretako prestazio bat baino gehiago jasotzen dutenek 2011ko abenduaren 31ra arte kobratuko dute; hortik aurrera,

prestazioetako bat hautatu beharko dute. Prestazio horietakoren bat eskatzen dutenek, berriz, ezingo dituzte metatu.

➤ “Adingabeei laguntzeko” eta “egoera zailean dauden gazteei laguntzeko” kontusailak ere murriztu egin dituzte.

IV- MURRIZKETAK ETXEBIZITZA-ALORREAN

Etxebizitzarena da Nafarroako arazorik nagusietakoa, konpontzeke jarraitzen duena. Baina arazoari adarretatik heldu beharrean, Sustapen eta Etxebizitza Sailak murrizketa gogorrak egin behar ditu.

➤ *Etxeak zaharberritzeko laguntzak, bertan behera*

Etxebizitza Sailak kendu egin ditu etxeak zaharberritzeko laguntzak, baita eraikinetako eta etxebizitzetako energia-eraginkortasunaren aldekoak ere.

Laguntza horiek eskatu behar zituztenekiko mespretxua erakustez gain, erabaki horrek beste ondorio bat ere ekarriko du: enplegu gehiago galtzea lehendik ere oso gaizki zebilen eraikuntzako sektorean.

➤ *Alokairua ordaintzeko laguntzak, bertan behera*

Babes ofizialeko alokairuko etxeetan bizi direnek errenta ordaintzeko laguntzak badaude, betiere halako diru-sarrera jakin batzuk baldin badituzte (IPREM halako 1,7tik beherako diru-sarrerak). Bestalde, azkenekoz laguntza jaso denetik urtebete, gutxienez, itxaron behar da berriro eskatzeko.

Laguntza horiek kendu egin behar ditu Etxebizitza Sailak. Hortaz, babesik gabe geratuko dira babestutako alokairu bat ere ordaindu ezin dutenak.

V- MURRIZKETAK GENERO-ALORREAN

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Sailak besteak beste genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko erabiltzen ziren kontusailak murriztea erabaki du.

Zehazki, % 62,6 murriztu ditu “Genero-indarkeriako biktimei laguntzeko premiazko laguntzak”, eta % 5 “Genero-indarkeria” prebenitzeko eta gai horri buruzko sentsibilizazioa sustatzeko laguntzak.

Onartezina da Nafarroako Gobernuak murrizketak egitea genero-indarkeriaren alorrean, urtero bortizkeria-mota hori dela medio hainbat emakume hiltzen denean.

VI- MURRIZKETAK LANA ETA FAMILIA UZTARTZEKO POLITIKAN

Berdintasun-politikek aurrera egiteko, haiek bultzatzeko borondatea izan behar dute gobernuek, eta haien alde egin. Nafarroan, bistakoa da gobernuaren borondaterik eza. Hona hemen zer murrizketa egingo dituen:

➤ Eszedentziagatiko laguntzak

% 5 murriztu da eszedentziagatiko laguntzetarako kontusaila. Jende askok hartu ohi du eszedentzia, lanpostuari uko egin gabe familiaz arduratu ahal izateko.

➤ Autonomo emakumekoei lana eta familia uztartzeko ematen zaizkien laguntzak

Besteren konturako langile ez diren emakume askori jaitsiko dizkiete lana eta familia uztartzeko laguntzak (% 15,8ko murrizketa).

III- ELA-REN PROPOSAMENAK

1.- ZERGA-ALORREKO PROPOSAMENAK

a) ORAIN ARTEKO ZERGA-POLITIKA

1.- Zerga itunduengatik Nafarroan 2010ean bildu zena, eta 2009arekiko aldea

Foru Ogasunak **3.153,7 milioi euro** jaso zituen 2010eko ekitaldian zerga itunduengatik, hau da, 2009an baino % **3,5** gutxiago. Gogoan izatekoa da 2007az geroztik % 12,3 jaitsi dela bide horretatik jasotako diru-kopurua Nafarroan. Beraz, iazko jaitsieraren aurretik ere beherakada handiak izan ziren 2008an eta 2009an.

Hona hemen 2010eko ekitaldian zerga bidez jasotakoaren azterketa:

- **PFEZa** izan zen 2010ean Foru Ogasunari diru gehien bildu zion zerga (1.039,6 milioi euro, guztizkoaren % 33), 2009an baino % 6,4 gutxiago bildu zen arren.
- Horren atzetik dator **BEZa** (973,2 milioi euro, guztizko sarreraren % 30,9). Azken ekitaldian, % 27,2 egin zuen gora zerga horren bidez bildutakoak.
- Ondoren, **Zerga Bereziek** (458,2 milioi euro, guztizkoaren % 14,5) bildu zuten gehien (2009arekin alderatuta, % 1,9 gehiago).

Sozietateen Gaineko Zergaren bidez, berriz, 188,5 milioi euro bildu ziren (guztizkoaren % 6), 2009an baino % 54,3 gutxiago (412,6 milioi eurotik, 188,5era).

ZERGA ITUNDU NAGUSIENGATIK JASOTAKOA, ZERGA-MOTAREN ARABERA. EGITURA ETA BILAKAERA. NAFARROA, 2010-2009

	2010		2010-2.009
	Milioi euro	Guztizkoaren %	Aldaketa (%)
PFEZa	1.039,60	33,0	-6,4
BEZa	973,21	30,9	27,2
ZERGA BEREZIAK	458,24	14,5	1,9
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	188,48	6,0	-54,3
BESTE ZENBAIT	494,14	15,7	-10,3
GUZTIRA	3.153,67	100	-3,5

Iturria: Nafarroako Foru Ogasunak zerga itunduen bidez 2010-2009 epean jasotakoa (Nafarroako Gobernua)

Jasotakoa **zuzeneko edo zeharkako zergen** bidez bildua den aztertuz gero, hona emaitza:

- **Zuzeneko zergen bidez**, 1.278,1 milioi euro bildu ziren, guztizkoaren % 40,5. 2009arekin alderatuta, % 18,8 egin zuen behera zuzeneko zergen bidez jasotakoak; hortaz, igo egin zen, 2010ean, zuzeneko eta zeharkako zergen bidez bildutakoaren arteko tarte. **Sozietateen gaineko Zergaren jaitsierak** eragin handia izan zuen 2010eko ekitaldian zuzeneko zergen bidez jasotakoaren jaitsieran.

- Zeharkako zergen bidez, berriz, 1.843 milioi euro bildu ziren, guztizkoaren % 58,4 (aurreko ekitaldian baino % 10,9 gehiago).

ZERGA ITUNDU NAGUSIENGATIK JASOTAKOA, ZERGA-MOTAREN ARABERA. EGITURA ETA BILAKAERA. NAFARROA, 2010-2009

	2010		2010-2009
	Milioiak €	Gustizkoaren (%)	Aldaketa (%)
ZUZENKO ZERGAK	1.278,1	40,5	-18,8
ZEHARKAKO ZERGAK	1.843,0	58,4	10,9
GAINERAKOAK	32,6	1,0	-2,5
GUZTIRA	3.153,7	100	-3,5

Iturria: Nafarroako Foru Ogasunak zerga itunduen bidez 2010-2009 epean jasotakoa (Nafarroako Gobernua)

Zuzeneko zergen bidez jasotakoa aztertuz gero, hona emaitza:

- o **Lanaren PFEZak** bildu du, beste behin ere, diru gehien, zuzeneko zergei dagokienez (1.030,8 milioi euro, zuzeneko zergen bidez jasotakoaren % 80,7). 2009ko zenbatekoarekin alderatuta, ez da ia batere aldatu.
- o **Enpresen, profesionalen eta kapitalaren gaineko zergen** bidez, 342,3 milioi euro jaso ziren 2010ean, zuzeneko zergen bidez jasotakoaren % 26,8, hau da, aurreko urtean baino % 41,8 gutxiago. Enpresen, profesionalen eta kapitalaren gaineko zergak zehatz aztertuta, hauek dira ondorioak:
 - 188,5 milioi jaso ziren Sozietateen gaineko Zergaren bidez (zuzeneko zergen bidez jasotako guztiaren % 14,7, aurreko ekitaldian baino % 54,3 gutxiago).
 - Enpresen, profesionalen eta kapitalaren gaineko PFEZaren bidez, 153,8 milioi euro jaso ziren 2010eko ekitaldian, hots, zuzeneko zergen bidez jasotako guztiaren % 12 (2009an baino % 12,6 gutxiago).

ZUZENeko ZERGA ITUNDU NAGUSIENGATIK JASOTAKOA, ZERGA-MOTAREN ARABERA. EGITURA ETA BILAKAERA. NAFARROA, 2010-2009

	2010		2010-2009
	Miloi €	Guztizkoaren (%)	Aldaketa (%)
LANAREN PFEZa	1.030,8	80,7	-0,5%
- SOZietATEEN GAINEKO ZERGA	188,5	14,7	-54,3%
- ENPRESEN, PROFESIONALEN ETA KAPITALAREN PFEZa	153,8	12,0	-12,6%
ENPRESEN, PROFESIONALEN ETA KAPITALAREN ERRENTAK (*)	342,3	26,8	-41,8%
BESTE ZENBAIT	-95,0	-7,4	91,6
ZUZENeko ZERGEN BIDEZ JASOTAKOA, GUZTIRA	1.278,1	100	-18,8

Iturria: Nafarroako Foru Ogasunak zerga itunduen bidez 2010-2009 epean jasotakoa (Nafarroako Gobernua)

Ondorioa

2010eko ekitaldian, % 3,5 **egin zuen behera** itundutako zergen bidez **jasotakoak**, batez ere zeharkako zergen bidezkoak, % 7,5 jaitsi baitzen. Hori dela eta, murriztu egin da Nafarroako zerga-sistemaren progresibitatea. **Sozietateen gaineko Zergen bidez** jasotakoaren (-% 54,3) eta **enpresen, profesionalen eta kapitalaren errenten jaitsierak** (-%12,6) eragin zuten, batik bat, zuzeneko zergen bidez jasotakoaren murrizketa.

Zuzeneko zergen bidez jasotakoak, beste behin ere, lanaren errentak izan zituen oinarri; izan ere, **lanaren PFEZaren bidez** jaso zen zuzeneko zergen bidez bildutakoaren % 80,7.

2.- Nafarroako presio fiskala. 2000. urtetik aurrerako bilakaera

BPGd-aren % 16,4 izan zen, 2010ean, zerga itunduen bidezko zerga-presioa Nafarroan, hau da, Nafarroako ekonomiak sortutako 100 eurotik zerga bidez jaso zituen Nafarroako Gobernuak.


Inoiz ez da hain baxua izan zerga horien bidezko presioa Nafarroan. Grafikoak erakusten digunez, 2010eko zerga-presioa 2009koa baino 1,1 puntu txikiagoa izan zen (BPGd-aren % 17,5), eta 2000koa baino 2,9 puntu txikiagoa.

Garrantzi handikoa da 2007tik aurrera aztertzea presio fiskala, hau da, egungo krisia hasi baino justu lehenagotik. 2007tik 2010era, 3,2 puntu egin du behera presio fiskalak. Jasotakoaren zenbatekoan horrek suposatzen duena hau da: 2010ean 2007ko presio fiskalari eutsi izan balitzaio, 626,3 milioi euro gehiago jasoko zituzkeen Nafarroako Gobernuak 2010ean.

Zuzeneko eta zeharkako zergen presio fiskalaren azterketak hau diosku:

- o 2010ean, **zuzeneko zergen presio fiskala** BPGd-aren % 6,6 izan zen, 2009an baino 1,8 eta 2000n baino 2,2 puntu txikiagoa.
- o 2009an, BPGd-aren % 9,6 izan zen **zeharkako zergen presioa** (1,2 puntu egin zuen gora azkeneko ekitaldian, baina 2000koarekin alderatuta, 0,6 puntu egin zuen behera).

ZERGA ITUNDUEN PRESIO FISKALA, GUZTIRA (ZUZENEKOAK ETA ZEHARKAKOAK) (BPGd-aren %). NAFARROA, 2000-2010




Iturriak: Nafarroako Foru Ogasunak zerga itunduen bidez 2000-2010 epean jasotakoa (Nafarroako Gobernua) eta Barne Produktu Gordina (IEN)

Zuzeneko zergen presio fiskalaren banaketak erakusten digunez:

- o BPGd-aren % 5,4 izan zen **lanaren PFEZaren** presio fiskala, 2009koa baino 0,2 puntu txikiagoa eta 2000koa baino 0,6 puntu handiagoa.
- o BPGd-aren % 1,8 izan zen **enpresen, profesionalen eta kapitalaren gaineko presio fiskala**, 2009koa baino 1,4 puntu eta 2000koa baino 1,7 puntu txikiagoa. Enpresen, profesionalen eta kapitalaren gaineko presio fiskalak erakusten digunez:
 - Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala BPGd-aren % 1 izan zen 2010ean, hots, 1,4 puntu egin zuen behera azken ekitaldian, eta 1,7 puntu 2000tik hona. Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskalaren joera da aztertutako epeko zeharkako zergen presio fiskalaren bilakaeraren adierazle.
 - Enpresen, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren gaineko presio fiskala BPGd-aren % 0,8 izan zen, eta aldaketa gutxi izan du epe horretan. Dena den, 2009an eta 2000n baino 0,1 puntu txikiagoa da.

ZUZENEKO ZERGEN PRESIO FISKALA (BPGd-aren %).
NAFARROA, 2000-2010




Iturriak: Nafarroako Foru Ogasunak zerga itunduen bidez 2000-2010 epean jasotakoa (Nafarroako Gobernua) eta Barne Produktu Gordina (IEN)

Zeharkako zergen presio fiskalaren azterketa zehatzak erakusten digunez:

- o 2010ean, BPGd-aren % 5,1 izan zen **BEZaren** presio fiskala, 2009koa baino puntu bat handiagoa eta 2000koa baino 1,5 puntu txikiagoa.
- o **Zerga berezien** presio fiskala BPGd-aren % 2,4 izan zen 2010ean, 2009koa bezalakoa eta 2000koa baino 0.5 puntu txikiagoa.

ZERGA ITUNDUEN PRESIO FISKALA, GUZTIRA (ZUZENEKOAK ETA ZEHARKAKOAK) (BPGd-aren %). NAFARROA, 2000-2010



Iturriak: Nafarroako Foru Ogasunak zerga itunduen bidez 2000-2010 epean jasotakoa (Nafarroako Gobernua) eta Barne Produktu Gordina (IEN)

ONDORIOAK

1.- 2010ean, aberastasunaren **(BPGd-a) % 16,4** sortu zuten zergek, hots, **2000. urteaz** geroztik izan den **presio fiskalik txikiena**.

2.- Azpimarratzekoa da zerga itundu guztietatik presio fiskal handiena lanaren **PFEZak duela**, eta zerga horren presio fiskala izan dela **2000ko ekitaldiaz geroztik igo den bakarra**, zerga nagusiei dagokienez.

3.- Krisia hasi zenetik (2007), 3,2 puntu jaitsi da presio fiskala. Horrekin batera, Madrilek erabakitako gehieneko defizitaren muga (% 1,3) onartu egin du Nafarroako Gobernuak.

Zerga bidez jasotako zenbatekoa BPGd-aren 3,2 puntu horiek jaitsi ez balitz, aurrekontuak superabita ere izango luke, gastu soziala handitzeko erabili ahal izango litzatekeena. Nafarroako Gobernua da jaitsieraren erantzule nagusia.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ), Nafarroan, 2009an, eta 2000koarekiko aldea

Beste behin ere, lanaren errentak izan ziren nagusi, 2009ko ekitaldian, PFEZaren bidez jasotako zenbatekoan (zerga horretan aitortutakoaren % 83,3); enpresarien eta profesionalen errentak, berriz, aitortutako guztiaren % 5,3 besterik ez ziren izan (% 11,5 izan ziren gainerako errentak, hots, kapital higigarriaren errendimenduak, kapital higiezinaren errendimenduak, eta Alderdi Orokorren eta Bereziaren igoerak).

ERRENTA-ITURRIEK PFEZ-AN DUTEN GARRANTZI ERLATIBOA (%).

NAFARROA, 2009

LANA	ENPRESAK, PROFESIONALAK	GAINERAKOAK
83,3	5,3	11,5

Iturria: Nafarroako Gobernua

Ondorio kezkagarriak dakartza, halaber, **aitortutako batez besteko errentaren** gaineko informazioak³: 2009ko PFEZan laneko errentak aitortutako batez besteko errenta 25.019,4 € izan zen; errenta profesionalak, berriz, 9.220,1 €, eta 6.237,6 € enpresa-errentak dituztenena. Hortaz, laneko errentak dituztenek, batez beste, errenta profesionalak dituztenek baino 15.799,3 euroko irabaziak aitortu zituzten, eta enpresa-errentak dituztenek baino 18.781,8 euro gehiago, urteko.

TALDE BAKOITZAK AITORTUTAKO BATEZ BESTEKO ERRENTA (€).


NAFARROA, 2000-2009

	LANEKO ERRENTAK	PROFESIONALEN ERRENTAK	ENPRESA- ERRENTAK
2000	18.958,0	10.721,9	8.290,7
2001	18.704,5	10.427,9	8.374,0
2002	19.221,4	10.545,1	8.217,2
2003	20.309,3	10.831,5	8.464,3
2004	21.100,5	10.124,1	8.514,3
2005	21.157,8	10.602,1	8.296,4
2006	22.278,8	11.106,9	8.393,2
2007	23.362,5	10.584,0	8.423,9
2008	25.059,1	10.130,7	7.203,2
2009	25.019,4	9.220,1	6.237,6
2000-2009	6.061,4	-1.501,8	-2.053,1

Iturria: geuk egina, Nafarroako Gobernuko informazioa oinarri hartuta.

2000-2009 epean, 6.061,4 € egin zuen gora batez besteko laneko errenta aitortuak; profesionalen batez besteko errenta aitortuak, aldiz, 1.501,8 € egin zuen behera, eta 1.170,7 € (behera) enpresa-errentak. Honenbestez, areagotu egin zen, zazpi urte horietan, errenta-mota batzuen eta besteen arteko aldea. Zehazki, laneko batez besteko errenta aitortuaren eta profesionalen errentaren arteko aldea 7.563,2 € igo zen, eta 8.114,4 € laneko batez besteko errenta aitortuaren eta enpresa-errentaren artekoa.

TALDE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO ERRENTA AITORTUAREN
BILAKAERA (€). NAFARROA, 2000-2009



Iturria: geuk egina, Nafarroako Gobernuko informazioa oinarri hartuta.

Ondorioak

1.- Laneko errentak dira errenta aitortuaren % 83,3 PFEZn, hots, profesionalen eta enpresen errenta aitortuak (% 5,3) baino 16 aldiz handiagoak. Gero eta handiagoa da bien arteko aldea.

2.- Laneko batez besteko errenta aitortua profesionalena baino 2,7 aldiz handiagoa da, eta enpresariena baino lau bider handiagoa. Geroz eta handiagoa da, urterik urte, errenta aitortuen arteko aldea: 7.563,2 € igo da laneko errenten eta profesionalenen artekoan, eta 8.114,4 € laneko errenten eta enpresen artekoan, 2000-2009 epean.

3.- Bistakoa denez, lanekoak ez diren errentak dituztenek benetako irabaziak baino askoz ere txikiagoak aitortzen dituzte. Datuok garbi erakusten dute zenbateraino den izugarria lanekoak ez diren errenten zerga-iruzurra. Zuzeneko lotura du iruzur horrek Foru Erkidegoan egiten den zerga-ikuskaritza eskasarekin. Bestalde, garbi ikusten da zerga-iruzurrak, beheara egin beharrean, gora egiten duela, urterik urte handiagoa baita laneko errenten eta gainerakoen arteko aldea.

4.- Europako Batasuneko presio fiskal txikienetako bat


Presio fiskal osoaren azterketak (Gizarte Segurantzako diruzaintzako zergak eta zerga itunduen gaineko udal-zergak barne direla) beste behin ere adierazten digunez, Nafarroako presio fiskala Europako Batasuneko txikienetakoa da.

2009ko ekitaldian, zehazki, BPGd-aren % 30,6 izan zen Nafarroako presio fiskala, guztira. Beraz, estatu espainiarrak, Greziak eta Irlandak bakarrik dute Nafarroak baino presio txikiagoa.

EB27ko presio fiskala baino 7,8 puntu txikiagoa izan zen Nafarroakoa urte horretan, eta EB27koaren batezbestekoa baino 1.456,8 milioi euro gutxiago jaso ziren.

Jakina, askoz handiagoa da aldea presio fiskal zorrotzak dituzten estatuekin alderatzen badugu Nafarroa: 17,5 puntuko aldea Danimarkarekin; 16,3 puntukoa Suediarekin; 12,9 puntukoa Belgikarekin...

PRESIO FISKALA, GUZTIRA (BPGd-aren %). EB-27, 2009



Iturriak: Eurostat, Nafarroako Foru Ogasunak zerga itunduen bidez 2009an jasotakoa (Nafarroako Gobernua), 2009ko BPGd (IEN), EELL (IEN), Gizarte Segurantza

b) ELAK proposatzen duen zerga-politika

Egoera ikusirik, ezinbestekoa deritzo ELAK Nafarroako zerga-sistema erabat aldatzeari, bidegabea baita. Horretarako ekimenak bultzatzeko, borondate politikoa bakarrik behar da. Saiatuko gara, ahal dugun heinean, ekimen horiek zer ondorio ekonomiko izango lituzketen zehazten.

Iruzur fiskalaren aurkako borroka

Soldatapeko lanekoak ez diren errenten iruzur fiskalari (izugarria) aurre egiteko, ezinbestekoa da:

- Soldatapekoak ez diren errenta guztiak ikuskatu behar dira (PFEZari, Sozietateen gaineko Zergari eta BEZari dagokienez), iruzurra preskribatu aurretik. Hortaz, multzo horretako errenten % 25 ikuskatu behar dira, urtean (gaur egun, % 1 baino gutxiago ikuskatzen dira).
- Nabarmen areagotu behar dira horretarako behar diren giza baliabideak, ikuskapen-kopuruaren areagotzearekin bat.
- Kendu egin behar da PFEZaren kalkulu objektiboa egiteko moduluko erregimena. Sistema horri esker, PFEZaren tarifa aplikatuta baino gutxiago ordaintzen da zergatan (onartezina, erabat).
- Zorrotz aztertzea zergatan diru gutxiago ordaintzeko aukera ematen duten lege-mekanismoak, eta mekanismo horiek kentzea.
- Iruzur fiskalari buruzko azterketak egitea, hainbatean behin.

PFEZa

PFEZari dagokionez, hau eskatzen du ELAk:

- Zerga-eskalaren progresibitatea (bazterrera utzia) berreskuratzea. Aldatu egin behar litzateke eskala, errenta txikienei aplikatzen zaien tasa jaitسي (igo egin da) eta errenta altuenena, igo. Egungo tasa marjinala (% 44), zehazki, % 56era igo behar litzateke.
- Tratamendu bera ematea errenta-mota guztiei. Pribilegiozko tratua kendu egin behar zaie kapitalaren errentei; izan ere, tasa finkoa ordaintzen dute, tarifa orokorreko gutxienekoaren azpitik. Tratamendu bera eman behar zaie diru-sarrera guztiei; zerga-oinarri bakarra ezarri behar da.

Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, hau proposatzen du ELAk:

- Sozietateen gaineko Zergaren tasa nominal bakarra ezartzea (% 35).
- Zorrotz murriztea zerga-kenkariak, egungo benetako tasa nominalaren erdiraino jaisten baitute.

Ondarearen gaineko Zerga

- Berreskuratu egin behar da Ondarearen gaineko Zerga, eta kendu zenean baino helburu handiagoak ezarri. Jarduera ekonomikoa bultzatuko omen zutela eta, zenbait neurri hartu ziren 2008an. Neurri horietatik, Ondarearen gaineko Zergari ematen zitzaion hobaria (% 100ekoa) zen aipagarriena. Gogoratzekoa da zerga hori kentzeak 70 milioi euro jaitسي zuela zerga-bilketako dirua 2009an.

Gizarteak parte hartzeko bideak

- Partaidetza-prozesu bat abiarazi behar da, zerga-politika zehazteko, eta sindikatuek partaidetza (benetakoa eta aktiboa, ez orain arteko entzute pasibo eta formal hutsa) izan dezaten mekanismo instituzionalizatuak ezarri behar dira). Halaber, gizarteari ere galdetu behar zaio gai honetaz, zerga-erreformak egiten direnean.
- Ezinbestekoa da gizarteari jakinaraztea zer ari den gertatzen zerga-alorrean, zer ekarpen egiten duen talde bakoitzak. Gogoan izan zerga-alorra dela Nafarroako Gobernuaren eskumen nagusia, baina, orain artean, propaganda erabili du Gobernuak, informazioaren ordeaz, alor horretan. Ez da egiten ez da urteroko memoria bat ere zerga-arloan egindakoa jasotzeko. ELAren aldarrikapena, honenbestez, hau da: hainbatean behin informazio garrantzitsua ematea, zehatza eta ekitaldi batetik bestera alderatzeko modukoa, zerga bakoitzaren kudeaketa-parametroei eta ikuskaritzari buruz.

2.- OSASUNARI ETA HEZKUNTZARI BURUZKO PROPOSAMENAK

a) Osasunaren eta hezkuntzaren egungo egoera

Osasun eta hezkuntza funtsezkoak dituen arren gizarteak, aurrekontu-doikuntzak eta murrizketak ari dira jasaten Nafarroan.

2011rako osasun-alorrerako aurreikusitako gastu publikoa 2010koa baino 0,5 puntu txikiagoa zen, BPGd-arekin alderatuta. Horri, noski, gerora gastu horri egin zaizkion murrizketak gehitu behar zaizkio.

Egoera hori dela eta, 2 puntuko gastu-defizita genuen OCDErekiko 2007an (datuak ditugun azken ekitaldia): OCDEn, osasun-alorreko batez besteko gastu publikoa BPGd-aren % 6,5 zen; Nafarroan, aldiz, % 4,5.

Osasunbidean lan egiten dutenei ez ezik, osasun-zerbitzu publikoaren erabiltzaile guztiei eragiten die horrek. Izan ere, Osasunbideako langileek ezin dituzte gizartearen premia guztiak ase, eta zerbitzuaren kalitatea jaitsi egiten da.

Antzekoa da egoera hezkuntzan ere. 2011rako aurreikusitako aurrekontua 2010ekoa baino 0,3 puntu txikiagoa zen, BPGd-arekiko, eta murrizketa handiak ari dira egiten sektore horretan ere. OCDEko batez besteko gastuarekiko aldea ere handia da. Nafarroan, BPGd-aren 2,1 puntu gutxiago gastatzen dira hezkuntzan: 2007an, BPGd-aren % 3,1 gastatu zen hezkuntzan; OCDEko batezbestekoa, aldiz, % 5,2 izan zen.

Sektore horretan lan egiten dutenei eta hezkuntza-sistemaren kalitateari ere eragiten diete hezkuntzako murrizketek.

Pribatizazioa ere kontuan hartu beharreko faktorea da Nafarroako osasunean eta hezkuntzan. Batetik, zeharka eragiten du: zenbat eta txikiagoa izan Administrazio publikoak eskariari erantzuteko duen ahalmena, orduan eta

handiagoa delako sektore pribatura jotzeko joera. Eta bestetik, era zuzenean eragiten du; izan ere, Nafarroako Gobernuak areagotu egin ditu, azken urteotan, sektore pribatuarekiko itunak eta harentzako ekarpenak.

b) ELAren proposamenak

- OCDEko batez besteko gastuarekin parekatzea Nafarroakoa

Nafarroako Gobernuak areagotu egin behar luke osasun- eta hezkuntza- alorretako gastua, eta herrialde industrializatuen (OCDE) batezbestekoarekin parekatu. Horretarako, % 44,4 igo beharko luke osasun-arloko gastua (ia 450 milioi euro urtean), eta % 67,7 hezkuntzako (380 milioi euro gehiago urtean).

Borondate eta lehentasun politikoen arabera da osasun- eta hezkuntza- alorretako gastua. Nafarroak ez dauka zertan izan osasunean eta hezkuntzan gutxien gastatzen duen OCDEko lurraldea, agintarien borondate politiko hutsagatik ez bada.

Hortaz, osasunean eta hezkuntzan murrizketak egin beharrean, sektore horietan gehiago inbertitzearen aldekoa da ELA.

- Osasun eta hezkuntza publikoa sustatzea

Ez osasunak, ez hezkuntzak ez dute izan behar negozio-eremu. Baina bi alor horiek merkantziatzat dauzkatenen alde dihardu Nafarroako Gobernuak, bi sektoreak pribatizatzen eta itunpetzen ari baita.

Salatzekoa da, erabat gainera, gai honekiko gardentasun eza. Izan ere, ez da batere informaziorik ematen itunei, desbideraketei eta pribatizazioei buruz, ezta horiek egiteko irizpideei eta horien diru-kostuari buruz ere.

ELAren iritziz, eskubidetzat hartu behar dira osasuna eta hezkuntza, gizarte osoarentzako zerbitzutzat, betiere berdintasuna eta kalitatea direlarik ardatz nagusi.

- Osasun-zerbitzu publikoaren estaldura areagotzea

Nafarroako osasun-zerbitzu publikoak ez ditu asetzen lehen mailako premietako asko, edo ez ditu behar adina asetzen. Osasun mentala, aho eta hortzetako osasuna eta zainketa aringarriak ditugu horren adibideetako batzuk.

Horrez gain, sektore pribatuaren esku ari dira uzten zenbait alor (zaharren zaintza, adibidez), eta zerbitzu horiengatik ordaindu beharra daukate herritarrek.

Bestalde, haurdunaldia norberaren borondatez eteteko aukera eman eta bermatu egin behar du osasun-sistema publikoak.

Administrazio publikoak oinarritzko premia horiek guztiak estaltzea proposatzen du ELAK.

- Hezkuntza eta osasun-arreta euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea

Osasun-arreta eta hezkuntza publikoa euskaraz jasotzeko eskubidea herritar guztiek izatea aldarrikatzen du ELAK.

3.- ETXEBIZITZAREN ALORREKO PROPOSAMENAK

Politika neoliberalek ekarri dituzten ondorio latzen adibide garbienetako bat dugu etxebizitzarena. Merkatu espekulatzaila da, Nafarroan, etxebizitzaren alorra, non biztanleriaren gutxiengo bat besteen lepora aberasten ari den.

Neurriz kanpoko da etxe hutsen kopurua, baina, hala eta guztiz ere, askoz gehiago ari dira eraikitzen. Nafarroako herritar askok, bestalde, ezin dute etxerik eskuratu, eta beraz, ez dute etxebizitza duina izateko beharra asetzen. Hori dela eta, hau proposatzen du ELAK:

- Etxebizitza duina izateko herritar guztiek daukaten eskubide subjektiboa aitortzea

Herritar guztien eskubide subjektibotzat aitortu behar da etxebizitza duina izatearena, jendeak etxe bat eskuratzeko dituen oztopoak ezabatzeko.

Eskakizun hori gauzatzeko, eskubidea judizialki betearazteko zenbait sistema ezarri behar litzateke.

- Espekulazioari aurre egitea

Espekulazioa da etxebizitzaren alorreko arazo nagusietako bat. Horri aurre egiteko, erabateko aldaketa egin behar da egungo legedian, etxebizitza izateko eskubidea bermatzeko, batetik, eta ingurumena errespetatzen duen lurralde-antolamendua egiteko, bestetik. Egungo araudiak atea zabalik uzte die birkalifikazioen negozioari, espekulazioari eta neurritz kanpoko eraikuntzari.

Bestalde, ELAren iritziz, babespeko etxeen erregimenak ez luke denbora-mugarik izan behar (30 urte, gaur egun), laguntza publikoak jaso dituen etxeekin espekulatzeko aukerarik inork izan ez dezan.

- Etxebizitza-alorreko gastu publikoa handitzea

Handitu egin behar da etxebizitza-alorreko gastu publikoa, BPGd-aren % 2raino, premia guztiak estali ahal izateko. 2011ko aurrekontuan % 1,9 eman

zaio alor horri, zerga-gastuak deskontatuta. Jakina, gerora egin diren murrizketak ere kontuan hartu behar dira.

- Informazio gehiago etxebizitzaren gaiari buruz

Onartezina da ez egotea batere ikerketarik edo argitalpenik Nafarroan etxebizitzaren alorrean dauden premiei eta egoerari buruz. Egoera ezkutatzeko modu bat baino ez da hori, arazoari adarretatik ez heltzeko asmoaren adierazle. Nafarroan etxebizitzaren alorrean dauden premiei eta eskariari buruzko aldian behingo azterketak egiteko premia gogorarazten du ELAk.

4.- ENPLEGUAREN ETA BABES SOZIALAREN ALORRETARAKO PROPOSAMENAK

Kezkatzekoak dira Nafarroako enpleguaren datuak:

ENPLEGUARI, LANGABEEI ETA BABES SOZIALARI BURUZKO DATUAK.
NAFARROA, 2011

	Nafarroa	EB27
Langabezia-tasa	% 12,9	% 11,2
Gazteen langabezia-tasa	% 29,2	% 22,8
Behin-behinekotasun tasa	% 26,2	% 14,2
Gazteen behin-behinekotasun	% 62,1	% 42,2
Behin-behineko kontratuak	% 93,2	
Langabeak	42.618	
Kotizaziopeko prestazioa	% 40,0	
Prestaziorik jasotzen ez	% 33,9	

Iturria: EPA, Eurostat, SEPE

**2011ko bigarren hiruhilekokoak dira EPAren eta Eustat-en datuak, azkena argitaratuak; SEPEren datuak, berriz, irailekoak (behin-behinekotasuna eta langabeak) eta abuztukoak (prestazioak).*

Yolanda Barcina lehendakariak, ordea, "inork ez dezala pentsa gobernua enplegu-sortzaile bihurtuko denik" esan zuen, eta V. Enplegu Plana sustatzen ari dela, "tresna eraginkorra dela frogatua" omen dago eta.

Arduragabeak eta kontraesankorrak ez ezik, kezkarriak ere badira Barcinaren iritzi horiek, orain arteko bide beretik jarraituko duela baitio.

Behin eta berriro frogatu du Nafarroako Gobernuak enplegua ez dela bere politiken lehentasunetako bat.

Langabe-kopurua bikoiztu egin da Nafarroan urte gutxiren buruan, behin-behinekotasuna Europakoa halako bi da, eta langabeen % 34,5ek ez dute inolako langabezia-prestaziorik jasotzen. Nafarroako Gobernua, bien bitartean,

“Enplegu-planak” finantzatzeko jardun da. Datuak ikusita, plan horiek sinatu dituztenek bakarrik jaso dute finantziarioa.

Egoera ikusirik, hau proposatzen du ELAK:

- EEE (ERE) bakar bat ere ez onartzea langileen ordezkarien adostasunik gabe.
- Laneko behin-behinekotasunari aurre egitea.
- Ez dezagun ahortzi administrazio publikoa ere enplegu-sortzailea dela; enplegu jasagarria, ekonomiaren sustatzailea, deslokalizatzen ez dena.

5.- GIZARTE-ZERBITZUEN ALORRERAKO PROPOSAMENAK

Gizarte-zerbitzuen sistema publikoa, unibertsala eta doakoa eskatzen du ELAK. Nafarroako Gobernuari dagokio sistema hori bermatzea, eta mendekotasuna pairatzen duten herritarrei beren premiak asetzeko zerbitzua eskaintzea, alor bakoitzean.

Horretarako, hau proposatzen du ELAK:

- Mendekotasuna pairatzen duten herritar guztiek beren premiak asetzeko zerbitzu publikoa, unibertsala eta doakoa jasotzeko eskubidea dutela aitortzea.
- Gizarte-zerbitzuetarako baliabide ekonomiko gehiago erabiltzea, aipaturako premiak asetzeko behar hainbat leku jartzeko. Horretarako, lanpostu askoz gehiago sortu behar da sektore horietan.

6.- SEKTORE PUBLIKOAREN SUSTAPENA

Administrazio publikoan azken urteotan egiten ari den doikuntza- eta murrizketa-politika guztiz kaltegarria da, bai gizartearentzat, bai ekonomiarentzat. Gastua murrizteak jardura ekonomikoa gelditzea dakar; horrek, berriz, langabezia handitzea.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren azken urteotako politikak ezaugarri nagusi hau izan du: administrazio publikoa desegin eta ahal duen guztia privatizatu egin du. Honenbestez, oso-osorik bota behar dira atzera privatizazio-planak; besteak beste, “Moderna Plana”.

Moderna Planaren xedea ez da Nafarroako eredu ekonomikoa aldatzea, baizik eta, privatizazioaren bidez, negozioa sustatzea eta are baliabide publiko gehiago jartzea kudeaketa pribatuaren esku. ELAK ez du onartzen Moderna Planaren filosofia. Izan ere, politika sozialen eta publikoen aurkakoa da administrazio publikoak (beste erakunde batzuekin batera) fundazio pribatu bat sortzea, honek baliabide eta eginkizun publikoak garatu eta kudea ditzan.

ELAk berretsi egiten du administrazio publiko indartsu eta osoaren aldeko jarrera, eta ez du inondik ere onartzen esku pribatuetan uztea baliabide publikoen kudeaketa.

7.- AZPIEGITURAK ETA INGURUMENA

Azpiegiturei eta ingurumenari dagokienez, jasanezina da egoera ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik:

- Garraio pribatua eta errepidea ditu oinarri herritarren mugikortasunak. Garraio publikoko politika ez da nahikoa, gure herrialdean luzeak baitira hiriburuaren eta eskualdeen arteko distantziak. Herritarrei ez zaie ematen ari behar duten zerbitzua, eta, ezinbestean, ibilgailu pribatua erabiltzea beste irtenbiderik ez dute.

- Proposatzen den alternatiba (AHTa) gizarteko zati oso txiki batek erabili ahaliko du, ez baitu balio Nafarroako eskualdeak elkarrekin lotzeko, Iruñea eta Madril lotzeko baizik. Ez dago proiektu horren beharrik, lehendik ere badugu eta premia hori asetzen duen tren azkarrik. Gainera, milioika euro xahutuko dira, eta onartezina da hori egungo egoera ekonomikoan, non gobernuaren konponbide bakarra hau den: gastu publiko arrunta murriztea (langile publikoen soldatak, adibidez).

- Merkantzia-garraiorako alternatibatzat aurkezten dute AHTa, baina ezinezkoa da horrelakorik egitea, inongo AHTk ez baitu merkantziarik garraiatzen. Moderna Planak, aldi berean, errepidez merkantziak garraiatzeko azpiegitura logistikoak sustatzen ditu. Kontraesan handia da, zinez.

- Hondakinen kudeaketari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ez dio jaramonik egiten Europako Batasunak ezarritako hierarkiari (Europako Hondakinen Direktiba). Hondakinak errausteari ematen dio lehentasuna Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrak, aldez aurretik prebentzio- eta birziklatze-politika seriorik aplikatu gabe.

ELAren proposamenak:

- Garraio kolektiboari eta publikoari lehentasuna ematea, herritar guztiek izan dezaten kalitateko zerbitzua, modu onean, eta, hartara, garraio publikoa izan dadin aukerarik onena.

- Alferrikako azpiegitura da AHTa, eta berehala geldiarazi behar da. Trenbide soziala sustatu behar da, biztanleria osoaren premiak asetzen dituen, denok ordaintzeko modukoa. Errepideetatik merkantziak benetan kentzen dituen tren

bat behar dugu. Onartezina da trenbide bat eraikitzea, lehendik ere egonik hobetu daitekeen eta behar den zerbitzua eman dezakeen beste linea bat.

- Hondakinen kudeaketak, berriz, Europako Batasunaren hierarkia bete behar du: prebentzioa, berrerabilpena, birziklatzea, balorizazioa eta ezabapena. Herrialde osoan aztertu eta aplikatu behar dira alternatibak: atez ateko gaikako bilketa, konpostajea (Montejurra eskualdean egiten da jada, Hondakin Planaren arabera desagertu egingo bada ere) eta hondakinak balorizatzeko eta ezabatzeko beste teknika batzuk, osasunari eta ingurumenari kalterik eragiten ez dietenak, betiere errausketa alde batera utzirik.

8.- EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

ELAren iritziz, Nafarroako Gobernuak aintzat hartu behar du zerbitzuak euskaraz jasotzeko eta administrazioarekin euskaraz jarduteko herritar guztiek duten eskubidea. Hizkuntza bat normalizatzeko bidea ez da haren erabilera mugatzea, ezta erabilerari oztopoak jartzea ere.

9.- DEMOKRAZIA SAKONTZEKO ETA GARDENTASUNA ETA GIZARTEAREN PARTAIDETZA SUSTATZEKO PROPOSAMENAK

a) Egungo egoera

- Zerga-arloa jorratzean genioenez, gardentasunik eza izan du ezaugarri, orain arte, Nafarroako Gobernuak.
- Ekonomia antolatuak eta haren interesek gure politikari, legegile eta erakundeetako goi-karguekin dituzten loturak nahita ezkutatzea da elementu aipagarrienetako bat. Horregatik, lobbien jarduerak gardena izan behar du, interes pribatuen alde baitihardute, ez orokorren alde.
- Herritarrak politikagintzatik urruntzen dituen gaietako bat hau da: ez zaio ematen gizarteari behar adina informazio garrantzitsu, gero gizarteak berak gertatzen ari denaz iritzi egokia izan dezan. Horren adibide dugu informazio eta dokumentazio ofiziala eskuratzeko zailtasuna (edo ezintasuna, zenbaitetan).

b) ELAren proposamenak

ELAren iritziz, kultura politiko demokratikoa sustatu behar da. Horretarako, areagotu egin behar Nafarroako Gobernuaren eta gainerako erakundeen demokratizazioa, bide hauek erabiliz:

- Erabaki politikoak hartzean, erreferendumak erabiltzea partaidetza-metodotzat. Informazioa eta eztabaida ezinbestekoak dira gizarte bat demokratikotzat hartzeko. Orain arte, Nafarroako erakundeek ez dute erreferendumik erabili erabaki politikoak hartzean. ELAri, ordea, osasungarria eta guztiz beharrezkoa iruditzen zaio bide hori erabiltzea,

batez ere gai garrantzitsuenetan eta gizartean eztabaida handia eragiten dutenetan.

- Arduradun politikoen harremanak (agenda) argitaratzea. Ordezkarik politikoei gardenki erakutsi behar dituzte beren harremanak, herritarrek jakin dezaten zer lotura duten kargu instituzionalek presio-lobbiekin.
- Moderna Plana eta antzekoak alde batera uztea, jarduera instituzionalaren lehentasunei buruzko erabakimena esku pribatuetan jartzen baitute.
- Dokumentu ofizialak eskuratzeko aukera izatea. Herritar orok eta erakunde sozial guztiek izan behar dute eskura informazio hori. Horrela, garbi jakingo genuke zertan ari diren Gobernua eta agintariak. Gardentasunak murriztu egingo luke botere-gehiegikeria.

Bateraezintasun-erregimena hedatzea. Hartara, presio-talde guztiek gardenki erakutsiko dituzte beren harremanak, eta herritarrek argi eta garbi jakingo dute zer interes-taldek laguntzen dieten alderdi politiko batzuei. Europako Batasunean hasiak dira presio- edo botere-taldeak arautzen; izan ere, Europako Gardentasun Ekimena (ITE) jarri dute martxan, eta horri buruzko Liburu Berdea argitaratu dute, hiru helburu hauekin: lobbyng-aren gardentasuna, iruzurraren aurkako borroka, eta estandar etikoak eta legegileen kontrola.
